

Yanguas-ek ez zuen Espinosa saldu

Deia, 1983-09-17.

Jakina da lehen Eusko Jaurlaritzaren Osasunerako Kontseilari zen Alfredo Espinosa jauna Bilbotik Frantziarantz zeraman egazkin korreoa Zarautzeko hondartzan jaitsi eta frankistek fusilatu zutela.

Hara neuk nire *Historia de Euskadin*¹ nola esan dudana: "ekaineko (1937) egun gaizto haietako batetan, Alfredo Espinosa Oribe eta artileriako buru zen Agirre komandanteak zeramaten egazkina Zarautzeko hondartzan lurreratu zen, frankistek erosita zuten piloto espainolak salduta. Biak fusilatuak izan ziren".

Honen nota bezala, Alfredo Espinosaren eskutitz hunkigarriaren zatia ematen dut.

Atzo aipatu nuen *Luis Otaño* berak esaten didanez, ez zen, inolatan ere *Jose Yanguas* traidore izan. Eta hara nola kontatzen didan gertatua: "Zoritarrezko egun horren bezperan ohartu ginen Korreoa egiten zuen egazkinaren bi motorretako batek zarata berezi bat egiten zuela. Esan nion, neuk Eliodoro de la Torre jaunak hurrengo eguneko egazkina hartu behar zuela esatera etorri zitzaidanari, ezetz, ez zegoela bidean jartzerik motor hori konpondu bitartean; eta jarri nituen mutilak lanean. Hurrengo goizean haserretu zen egazkina presako gauza bezala Yanguas'i eskatu eta honek (oso ausarta bait zen) besterik gabe hartu eta irten zela jakin zuenean".

Zer gertatu zen?

"Nik ondo ezagutzen nuen Yanguas, laguna nuen, ez zen inolatan ere leporatzen zaiona egiteko gauza. Gerra amaitu eta gero hitz egin dugu sarri gai honetaz. Zarautz ingurura heldu aurretik geratu zitzaion motor bat; ahaleginak egin zituen, baina ezina zen motor bakarrarekin aurrera jarraitzea.² Egazkina beheraka hasi zenean ez zuen hondartza hura beste aukerarik izan. Berehala harrapatu zituzten, et Yanguas-i tratu bat proposatu zion: bizirik eta libre utziko zutela, Begoñako Amaren bitxiak lortzen laguntzen bazien. Konfidantza handiko pilotoa zenez, hau izaten zen balio handiko gauzak Toulouse-era Credit Lyonnais-era eramateko firma zuenetako bat...".

Hauxe gertatu omen zen; frankistek kotxean hartu, Toulouse-era joan eta Yanguas-en bidez bitxiak atera eta eramane zituzten; Joan den urtean hil zen bere jaioterrian, Oviedo probintziako Llanes herrian.

¹ Editorial Planeta, S.A.; Vol. V, 228.

² Fusilatu aurretik Agirre Lehendakariari idatzi zion kartan Espinosak dio: "Como sabes, caímos prisioneros en la plaza de Zarautz por avería del avión a traición del piloto Yanguas...".